

ARDI ETA AHUNTZEN KUDEAKETA

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Ardi eta ahuntz aziedaren sektoreko produktuak ekoizteko eta merkaturatzeko baldintzetan gardentasun sistemak bermatzeko beharrak, ardi eta ahuntz espezieko animaliak eta abeltzaintza urtiategiak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema bat sortzea eragin zuen. Hori guztia, aziedaren mugimenduen jarraipena eta kontrolarekin batera, ezinbesteko tresna bihurtu da azken urteotan animalien osasunaren, abeltzaintza sektorearen antolaketaren eta elikagaien segurtasunaren arloetan politika egiteko.

Helburua:

- Animalia batek belarritako markaren bat galdu badu, identifikazio marken duplikatuak eskatzea.
- Ustiategiko animalien heriotza jakinaraztea.
- Beste ustiategi batzuetatik sartutako animalien altak adieraztea.
- Ardi eta ahuntz aziedako abereak lekualdatzeko dokumentuak egitea, hiltegia edo estatuko beste ustiategi batzuetara eramateko.
- Dokumentuak kudeatzea.

Nork tramitatzen du

- EKONOMIA SUSTAPENENKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNENKO DPTUA.
- Nekazaritzako eta Lurralde Oreekako Zuzendaritza Nagusia
- Abeltzaintza Zerbitzua

Nori zuzenduta

- Abeltzainak

Baldintzak

- [Abeltzaina ardi eta/edo ahuntz buruak markatzeko gaitua egotea](#) [WEB ORRIA ERAIKITZEN ARI DA]
- REGA-GIPUZKOAn ardi eta edo/ahuntz azpiustiategia jarduera erregistratua izatea ekoizteko eta hazteko sailkapenean.
- Lekualdatu behar diren animaliak ardi eta /edo ahuntz erroldan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko erroldaren datu basean behar bezala identifikatuta eta alta emanda egotea.

HASIERA ETA ESKAERA

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

[Ardi eta/ edo ahuntz buruen identifikazioa](#). [PRESTAKETAN]

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Sinadura elektronikoa/ziurtagiri digitala » Pasahitza

Tramitazio elektronikorako oharrak

Eskura dago Telefono mugikorrenzat APP berezia.

Zuzeneko arretarako bulegoak

- [Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak](#)
- Albaitari gaituen bidez.

EBAZPENA

Administrazioaren isiltasuna

Ez dagokio

ARAUDIA

Berezia:

- [Europako Kontzeiluaren 21/2004 Erregelamendua \(EE\) 2003 abenduaren 17ka, ardi eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema bat ezartzen duena, eta aldatzen dituena, 1782/2003 Erregelamendua \(EE\) eta 92/102/CEE eta 64/432/CEE Zuzentarauak eta ondorengo aldaketak,](#)
- [685/2013 Errege Dekretua irailaren 16koa, ardi eta ahuntz espezieetako animaliak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema ezartzen duena.](#)
- [Agindua, 2014ko urriaren 9koa, Ekonomia Garapeneko eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ardi eta ahuntz aziendaren identifikazio eta erregistro arloan garapen eta aplikazio arauak.](#)
- [1505/2006 Erregelamendua, 2006ko urriaren 11koa, Batzordearena\(CE\), zeinaren bidez Kontzeiluaren 21/2004 Erregelamendua \(EE\) ezartzen baita ardi eta ahuntz espezieko animalien identifikazioari eta erregistrori dagokionez egin beharreko gutxieneko kontrolen inguruan.](#)

Orokorra:

- [8/2003 Legea, apirilaren 24koa, abere osasunari buruzkoa.](#)
- [479/2004 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, abeltzaintza ustategien erregistro orokorra xedatu eta erregulatzen duena.](#)
- [728/2007 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, abereen mugimenduen erregistro orokorra eta abereak banaka identifikatzeko erregistro orokorra ezarri eta arautzen dituena.](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

Animalien lekualdatze bat egin aurretik hurrengo jarraibideak kontuan izan behar dira:

- Jatorrizko eta hartzaile den ustiategiak edo eremuak mugimenduak egiteko mugarik ez izatea.
- Lekualdatu nahi den animaliak murrizketarik ez izatea lekualdatzeko.
- Garraibideak behar bezala desinfektatuak egotea.
- Animaliak hiltegiara eramatea nahi bada, "Elikakateari buruzko informazio/adierazpena" izeneko dokumentuarekin batera lekualdatuko dira.